

ITSASOAN

(JULI-RI)

¿Zer dezu zeru eder zabala:
zer dira zure izuak?
gorritasunik eztu eman nai
eguzki garbien suak:
artsalde bat ¡o!¿zerartsaldea!
itsas arro indartsuak,
zurrunbilluan or daramazki
afar oritu urtsuak,
aitzen dirala kaio moko beltz
nabarbenarenchistuak.

Urak orruaz gogor zatitzen
duen arkaitz beltz goitikan,
mirabe gazte penagarri bat
bere gañean zutikan,
begiak zorrotz itsasoara
mugida gabetandikan
irristatuaz malkoak samiñ
tantoka biotzetikan,
bagak pasiaz barbull otsean
arkaitzen oñetatikan.

Begietatik saltatu naian
chingarrak diruditela
eta gorputz me liraiñ polita
aurreratutzen duela,
amoriozko far gozochoko bat

irteten zaio berela,
iduriturik an urrutian
batel chiki baten bela,
pozez biotza alchatzeraño
ikusi zuen bezela.

Kopetaratu zuen eskua
izerdi otzez bustia,
ezagaturik ura etzala
batelen bela churia,
ura etzala arrek zaitutzen
zuen sebera chikia;
ura zan pizti egalari bat.
itsas gañeko choria,
berri charraren ekartzallea,
ekaitzen mandataria,

Orduak presaz or daramate
menderatu ta eguna
eta gau beltzak erakusten du
bere kopeta illuna:
alare arkaitz gañean dago
inirabe biotz biguna,
odoi tartetik zi za pasiaz
chimista bizi gar-duna,
begietara gaitzez emanaz
beraren argitasuna.

Aize chistuak indar bultzadan
 ondatu bear goi-beak,
 entzuten ziran mendi gañetan
 turmoi ots neurri gabeak:
 eudi zaparra jasa bizian,
 eguzki printzak gordeak,
 ugariturik borborka datoz
 menditik beera ur meak...
 eztu alare arkaitz gañetik
 alde egiten umeak.

Arroka beltza jo ta marruaz
 austen dan itsaso otsak,
 ari-malkuak isur azitzen
 ziozkan kolpe bakoitzak:
 kolkuan jaco ez zezakean
 biotz larrien tupotsak,
 ¡ai! mingarri bat kanporatu du
 zizpiraz bere biotzak
 ¡aiñ mingarria! nola eritzen
 duen arantza zorrotzak.

Sartutzen ziran chimisten suak
 beren koleran, urera,
 ziruditela zurez jo eta
 itsasoare sutzera....
 baña ez! zerbait azaldu zaio
 begi larrien aurrera,
 batel chiki bat gidariekiñ
 olatuetan gain-beera,
 ia arraunka baztertutzen dan
 itsasoaren ertzera.

—¡Azal zaitea zeru ederra!
 ¡azal zaitea zerana!
 itsasoari ateratzeko
 atzapparretandaukana:
 ¡isilik zaude! ¿Ez dezu aitzen

biotz on baten esana?
 ¿erantzun orde bigaltzen nazu
 argi sutsua?... ¡au lana!...
 ¿zer jarri nazu begiz aurrean?
 ¿zer da ikusi detana?

¡Nere Luisen batelchua da!—
 dio ikaraz batetan,
 —sebera chiki urratubakiñ
 or dabillena bagetan:
 ¡Birjiña Ama! eskatzen dizut
 esku gurutzetuetan—
 arkaitz gañean chit fede biziz
 belaunikatuaz bertan,
 begi bustiak gora jasuz
 asi zan errezueta.

Berriz chimistak dizdiatzen du
 geiagotuz argia,
 baña batelik ezta azaltzen
 eta arraun gidaria.
 —¡Geldi zaitea apur bat—dio
 chimisten argi sutia!—
 turmoiak ere baziruditen
 entzunik aren antsia,
 ziotela ¡ai!—¡Egizu negar!
 ¡egizu nai dan guzia!—

Zabaldutzen da garra bizia
 mendi, borda ta larrera,
 zabaldutzen da amorratutzen
 dana guzia sutzera:
 arbol igarrak jo ta botatzen
 ditu sustraitik lurrera,
 suaren mingaiñ luze luzeak
 goitzen dirala aizera,
 diruditeln kiskaldu bear
 dutela zerua bera.

Turmoi dunbadak indarka datoz
 goi beak lertu naiean,
 arkitutzen da jo ta guzia
 apurtutzeko gaiean:
 ontan entzun da karrask otsa bat
 arroka beltzen oñean
 nork sartu dion dardar ikara
 deskanatzeko añean,
 lajiaz chimist sutsuak illa
 bezela arkaitz gañean.

Izarrak illak argi gaberik:
 chimistak danak nai sutu,
 arkaitzak ere beldur beldur naiz
 ez ote diran izutu;
 nik eztakit gaur goi ortan zer dan:
 eztakit zer dan gertatu,
 eztu nai arrats izuti ontan
 zeru illunak argitu,
 eztu nai orren ona dalarik
 eztu nai adiskidetu.

Jantzi zaitea gala ederrez:
 aguro jantzi zaitea,
 udako arrats garbien gisa
 argi loratuz betea:
 jzu etzerade orren gogorra!
 zerade mancha gabea,
 zuk erregu au entzungo nazu
 zera guzien jabea,
 zure eskuaz sosega zazu
 lureko inozentea.

¡Eztu entzun nai! ta eman dio
 gau ichutuen ichura,
 baga gañeko argi su-garrak
 bildurtasuna, tristura;
 itsasotikan ansi larri bat
 sartzen da bere pechura....
 —¡Nere Luis da! ¡Jesus maitea!—
 erregutuaz zerura,
 —¡Libra nazazu!—esan da goitik
 saltatutzen da putzura.

Itzali dira zeruko suak;
 ezta aizien chisturik,
 itsasoare nekatu eta
 arkitutzen da geldirik:
 zeru zabala urdiñ urdiña
 alaitsua ta pozturik,
 itsas choriak ezkutatuak,
 guzia dago isillik
 eta eguzki eder garbia
 edertasunez beterik.

Jo dubeneko kostalde dana
 eguzki argien suak,
 urtaz sarri itsas gañeko
 apar nabarben urtsuak,
 ur me mietan, itsas ertzean
 ziruditela batuak,
 ziruditela laztan batean
 biak aiñ estu lotuak....
 ¡nonbait zeruak ala nai eta
 arkitu ziran ituak!

VICTORIANO IRAOLA.

